

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DULANTZIKO UDALA

Zabor bilketa, ur hornidura eta estolderia eta arazketa zerbitzuengatik 2019ko laugarren hiruhilekoan ordaindu beharreko tasa kobratzea

Nik, Joseba Koldo Garitagoitia Odriak, Dulantziko (Araba) alkate naizen honek.

Jakinarazten dut: 2020ko otsailaren 1etik martxoaren 30era arteko egun baliodunetan (biak barne) ordaindu ahal izango dira borondatezko epean 2019ko laugarren hiruhilekoari dagozkion ondoko ordainagiriak:

- Zabor bilketaren tasa.
- Ur horniduraren tasa.
- Estolderia eta arazketaren tasa.

Ordainketa helbideratuta eduki ezean, borondatezko epean banku bulegoetara joanez egin ahal izango da ordainketa, hain zuzen, etxean jasoko den kobrantza abisuan aipatzen diren bulegoetan.

Era berean, zergadunei jakinarazten zaie ordainketa banketxe eta aurrezki kutxen bidez helbideratu ahal dutela, hala xedatzen baitu Diru-bilketaren Arautegiak.

Ordaintzeko adierazi den epea bukatutakoan, ordaindu ez dutenei premiamenduko beteazte bidez kobratuko zaizkie ordainagiriak, ehuneko 5eko errekariguarekin, halaxe xedatzen baitu lehentxeago aipatutako arautegiak 96. artikuluan.

Dulantzi, 2020ko otsailaren 1a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA